

Artxiduke baten aberria (2)

LUDWIG SALVATOR.—
Artxidukea bere lagun batzuekin. Ikusten denez, ez zen gizon lerden eta galanta. Hamabi urte zituela, Florentziatik herbestera koan hala iradundu omen zuen herritar batek: “Bai itsusia Printzea!” (J. J. Tous, garaiko klixea).



Italia-n jαιο, Austria-tik jatorria, Bohe-
mia-ra hiltzera, Horra Ludwig Salvator-en
halabeharra. Bizitza, ordea, inongoa izate-
kotan, mailorkarra.

Lurrak baino gizonak maiteago zituen Ar-
txidukeak. Andrassy-ren hura hartu zuen
liburu baten lematzat: “ezagutzen ditut gi-
zonak, eta berebat maitatzen”. Lurralde eze-
zagunek liluraturik zekarten gure gizona,
eta zenbat herri Mediterraneo-ko xokoetan!
Ta Mallorca-ren barea?

Mallorca-n

“Jaime II”-k ekarri zuen Ludwig Salvator
Mallorca-ra. Urte batzuek lehenago, apainki
aurkeztu zigun George Sand-ek ugarte mai-
tagarria: “ba du Suiza-ren berdea, Calabria-
ko zerupear, Sortaldeko jai eta isiltasuna-
rekin bat”. 1860-ko hamarrekotan Mallorca

ez zen gaurkoa. Printzea (luze eta ilegorria,
begi urdinak, gorputzez gizandi bat eta es-
pirituz urduria) lehenengotik Manuel de los
Herrerros-ekin topa zen. Jaun hau Balearee-
tako Bigarren Irakas-Institutoaren zuzenda-
ria zen. **Ca's Francés**-ean hartu zuen ostatu,
eta Herrerros jaunak lagundu zion Palma
ikustatzen.

Egunotan aldetik aldera ibilkatu zuen
ugartea. Mendi-zelaiek eta bazterretako os-
tatu apalek ikusi zuten Artxiduke ibiltaria.
Valldemosa, Deyá, Miramar, Sóller... beti
eta nonahi paperak marraztu eta argibideak
jasotzen. Orduan ezagutu zituen denbora-
ren arian bereak izango ziren hainbat lur.
“Son Marroig izan zen gehien bihotz-ukitu
ninduen ikuspegia”, esango digu berak.

Joan-etorri hartan klarisen komentu on-
doko jauregi bat erosi zuen, Formiguera-tar
kondeen sortetxea. Garai hartako Palma-n,
arratsaldeak bai bare ta geldiak! Bigarren

egonaldian hasi zituen bere hartu-emanak ugarteko ikastun eta idazleekin. Orduantxe hasi zen Ludwig Salvator-en Mallorca-ko bizitza. 1872-ko urtarrilean erosi zuen Miramar. Harrez gero lurrok zabaltzen ahalenginduko da: Son Galceran; Son Marroig, bere Na Foradada itsas-harkaitzarekin; Pedrissa, Deyá-ko itsaskolkoan kulunkari; L'Estaca; Valldemosa-n Son Mas dorrea; baina batez ere Miramar, beti Miramar.

Begira, begira, pinurietan zehar, Erdi Aroko (Edad Media) anakoreta zaharren errainu keixuak. Hortxe dabiltz, galduta, Raimon Llull eta fraideen izpirituak. Zer ez ote zuen usmatzen gure Printzeak arbolari hauetan. Maite zituen, izan ere, hemendik igarotako gizon paregabe haien irudiak, eta maite zuen baita izadia bera ere. Zoritxarrez, nekazariak Artxidukearen eros-minak ezagutu zituzteneko, basoak botatzen hasi zitzaizkion. Eta Ludwig Salvator, izadi hura salbatzearen, lurrak ordaindu eta erosten hasi zen. Ongi ordainduaz gainera. Laister Raimon Llull-en ermita berritik, aidez-aide eta maldan behera eta itsas-barne dilin-dulundari, ezkilaren deia Mallorca zahar berpiztutik...

Idazlea, jakintsua

Noizbehinka, Leipzig-eko Brockhaus argitaldaria halako liburutzar handiren bat inprimatzen zuen, Mediterraneo-uretan galdurik bizi zen herriren baten zehaztasunak agertuaz. Holakoetan Ludwig Salvator izan ohi zen liburuaren aita. Eolia, Jonia. Ramlech... handik eta hemendik Artxidukearentzat bai lamina-deirik frango!

Balear ugarteok ere Ludwig Salvator-engan izan dute, XIX gizaldian, beren ikastunik bikainena. Aurrekoan aipatu nizuen **Die Balearen** liburua hogei urteren buruko frutua da. Eta nolakoa, gero! Ehun bat ale bakarrik argitaratu zituen, eta salgai jarri gabe horiek ere. Dena jakite hutsaren amodioz. Infoliozko bederatzi tomo ditu liburua, eta bakoitzak 500-600 horrialde. Enziklopedia bat da: geologia, abere-landareak, giroa, herriak eta hauen monumenduak, jazerak eta folklorea, eta azkenik Raimon Llull- ez geroko literaturaren berri labur bat. Hau dena eta gehiago, apaingarri ta guzi. **Die Balearen** obra nagusi hau aparte, beste

hamaika (11) lan argitaratu zituen Mallorcariburuz.


Argitalpen hauek eta "Nixe" yatea ziren Artxidukearen diru-gasturik handienak, Mateo Obrador-ek dionez. Mailorkar enziklopedia honetan eta gainerako lanetan, idazlea testigu hutsa da: ikusia eman eta erakutsi, hori da bere lana. Zintzotasun guziarekin ematen du istudio-gaia, osorik eta zehazki. Lan hauek ez dute ia sekula literatura-apaintasunik.

Kasik denak alemaneraz idatzi zituen, baina ba ditu hiru liburuxka katalaneraz idatziak, Baleareetako hizkelgian emanak: **Lo que sé de Miramar, Somnis d'estiu ran de mar** eta **Rondanyes de Mallorca**. Dakizutenez, eta oraintsu Francesc de B. Moll-ek ederki esan digunez, Baleareetan katalanera mintzatzen da eta Catalunya-n bertan ere baino hizkera zaharragoa.

Printzea

Jakitun baino lehen Ludwig Salvator Printze jaio zen. Halaz ere, gure Artxidukearen odol urdinak nahiko gorri izan ziren. Haurtzaroan, libertade gose zen erresuma batean, Italia-n, bizi izan zen. 1846-an, Aita Santuak bere Estaduetako presondegiak idekitzean, Florentzia-ko herriak "Gora Pio IX" garrasi egiten omen zuen. Harrez gero, Erresumak eta gure Printzearen aitak, Leopoldo II-ak, izango zuten buruhausterik. Ondorengo bizpahiru urteetan libertadearen egunsentia ere ba zetorrela esan zitekean. Baina austriatarrek, Novara ondotik (1849), Italia-ko herri-oihuak isilarazi egin zituzten. Honela, Leopoldo, hestualdien ondoren, berriz ere jaun eta jabe gertatu zen; erregearen ospe ona, ordea, kanpotarren arma-ilzalpean usteldu zen. Italia-k ba zuen orain ikurrin berri bat:

"La bandiera tricolore
sempre è stata la più bella:
bianca face, rosso amore,
verde speme e libertà.
La bandiera tricolore
sempre è stata la più bella:
noi vogliamo sempre quella,
noi vogliamo libertà" (Carducci).



L'ESTACA. Mendia maldan behera bizian dator eta Mediterraneoko euri-jasa lodiekin lurak itsasora joan ditezke. Artxidukea lurrok maillakatu eta basoz aberasten ahalengindu zen, hemen, l'Estaca-n, ikusten dugun erara. (Truyol-en argazkia).

Eta Leopoldo-k ez zuen bandera hori, Garibaldi-rena zen. 1859-an hasi zen Ludwig Salvator-entzat desterrua, Metternich-en babesperik ez baizen posible. Ezbehar hauek gizonengana urbilagotu egin zuten gure mutilla, eta Wien-ako jauregi-bizimodua ahaztu egingo du. Beretzat eta gizon guzientzat malte zuen libertatea. "Bihotzean zeramakien giza-askatasunaren sentimendua". Wien-ako jauregian ba zeuzkan gela izendatuak, baina zertarako?: libreago zen itsasoan, libreago "Nixe"-ren kapitaina.

Jatorriaren izateaz ezin odol-hustu geure burua, eta 1914-ko gerratea piztu zenean,

Son Marroig utzi egin behar Austria-ko Artxidukea zenak. Brandais Bohemia-n dago (gaur Txekoeslobakia-n), gaztelu-irudia Elba ibaiaren urretan blai duela. Wenzeslao Santuaren eraileak, Boleslao Gaiztoak, jaso da. Jauregi hau Ludwig Salvator-ena zen eta hara joan zitzaigun pake-bila. Baina, zoritarrez han atzerrian eta herbestean egon behar. Ez da han bere betiko serbitzaritatik inor, ez du han aidekorik. Bizitza bezela heriotza ere bakardadean jasan behar: 1915-eko urriak 12.

Joseba INTXAUSTI